

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Kaio baten historia

Luis Sepúlveda

ALBERDANIA

128 orrialde

13 euro

Adiskidetasunak eskatzen dituenak

Jesus Mari Mendizabal *Bizargorri*-k euskaratu du Luis Sepúlvedaren (Ovalle, Txile, 1949) istorio hau. Hanburgoko kaialdean gertatzen bada ere, berdin gerta zitekeen munduko edozein bazterretan, baita gurean ere. *Kaio baten historia eta hegan egiten irakatsi zion katwarena* liburuak azaltzen ditu gizakiekin oso eroso bizi den katu handi, beltz eta gizenaren bizitzan gertatzen hasten diren gauza berezi samarrak. Bost urte daramatza etxe batean eta ugazabek handik alde egitean, petrolioia bere gorpuan itsatsita daukan kaio bat eroriko da katua bizi den lekuan. Ezinean, hiltorian dago kaioa. Eta

katuak hitz ematen dio errun duen arrautzatik sortuko den kaio kumea haziko duela eta, are zailagoa dena, hegan egiten irakatsiko diola. **!**



Recuperación del Euskera en Navarra

Miquel Gros i Lladós

EUSKALZAINDIA

251 orrialde

18 euro

Nafarroako egungo gizarteak duen euskararen ezagutza

XX. mendeko azken hogeita bost urteetan euskarak Nafarroan izan duen bilakaera aztertu du Miquel Gros i Lladósek. 1986. urtetik hona Nafarroako gizarteak euskarari dagokionez duen benetako ezagutza azaldu du bere lanean. Udal erroldetan –1986tik hasi eta 2001era bitartekoak– nafarrek euskararen ezagueraz ematen dituzten erantzunak aztertzea erabaki zuen. Eta azterketa horren emaitzak eskaini ditu, metodologia zehatzez, Euskaltzaindiaren bitartez plazaratu duen *Recuperación del Euskera en Navarra* izenburuko liburuan. Biziki interesgarria da 2001eko erroldako datuekin egin duen 25 urtetik behar koen azpi-sailkapena, eta 15 urtetik behar koen artean euskara dakitenen ehuneko kopurua. **!**

Haur baten etorkizunerako asmoak

Yolanda Alzolaren kontakizun honetako protagonista neska txikia da. Maritxu du izena eta ez daki handitan zer izan. Beharbada mediku izango da, pailazo edo erizain, hala esaten dio bere buruari. Baina artista izatea ere ez du sekula bere asmoetatik baztertu, nahiz eta, egia esan, Maritxuk ez dakien artistek bezala dantza egiten eta musikatresnarik jotzen. Suhiltzailea izatea ere pasa zaio burutik, baina sugarrak irudikatu dituenen beldurtu egin da eta burutapena baztertu egin du. Munduko leku guztietako jendea ezagutzea ere gustatuko litzaioke. Baina hegazkineko laguntzailea izateko hizkuntza asko jakin behar dira, eta berak euskara eta gaztelania besterik ez ditu ezagutzen oraindik. Sukaldaria ere izan nahi du. Baina konturatu da oraindik ez dakiela janaririk prestatzen. Jostuna izatea, zer moduz? **!**



Zer izango naiz handitan?

Yolanda Alzola


IBAIZABAL

26 orrialde

7,30 euro

Europak dituen kontraesanak

Josep Fontana (1931) Valentzian eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan Historia Garaikideko irakaslea da, Pompeu Fabra unibertsitatean Historiako Institutuko zuzendari izateaz gain. *Europa ispiluaren aurrean* lanean europarrek identitate komuna kodifikatzeko dituzten arazoaren zergatia azaltzen saiatu da. Europaren historia plurala eta mestizoa dela gogoratu du horretarako. Fontanak dioenez, hasieran greziarrek eta erromatarrek “barbaro”-en tipologia asmatu zuten bezala, egun “besteek” begira antolatua dago Europa. Horren aurrean jakin behar dugu gure arazoak eta mundu azpigaratuenak elkarrekin konpontzea ezinbestekoa dela, bestela europarron zibilizazioa desagertuko litzatekeelako, ingurune aldakorrera egokitzeko gaitasuna galdu duten erkidego guztiak desagertu diren era berean. **!**



Europa ispiluaren aurrean

Josep Fontana

GAIK

218 orrialde

18 euro